

PASAIA

ITSAS FESTIBALA

• OARSO BIDASOKO •

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

HITZA



pasaia.itsasfestibala



Etorkizuna eraikitzen

Bide bat elkarrekin

www.lizeoa.eus



SARIDUNAK: 100 euroko bi bono

Laurak Bat-eko bazkideen komertzioetan kontsumitzeko

Parte hartutako HITZAkide eta
harpideen artean:

**RAMONTXO
ILLARREGI
ELBERDIN**



Parte hartzaile guztien artean:

**MARI CARMEN
CORCHETE
SEVILLANO**

Mila esker parte hartu duzuen guztioi!
Laster gure HITZAkide, harpide, irakurle eta
jarraitzaileentzat egitasmo gehiago izango ditugu prest!



• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Ondarea bigarrenez

Pasaia Itsas Festibalaren bigarren ekitaldiak maiatzaren 26tik 29ra ekarriko du badira itsas ondarearen esentzia. Aurretik badira jarduerak, baina itsas jaialdia egun horietan egingo dute ofizialki. Pasaiaiko Udala eta Albaola Itsas Kulturaren Faktoria dira milaka bisitari ekar ditzakeen jaialdiaren motore, betiere herriko eragileekin elkarlanean. Hainbat erakunde eta enpresak ere lagundu dute itsas festaren egituraketan. Gainera, udalerriko lau barrutietan egingo dituzte itsasaldiari lotutako ekitaldiak.

Ondare balioa duten ontzi tradizionalen nazioarteko topaketaren ideia iparrorratz izanda, badira iritsiko diren 160tik gora barkuek izaera berezia emango diote jaialdiari, Euskal Herrian tamaina honetako bakarra baita Pasaiakoa, 2018ko lehen edizioan garbi gelditu zen antzera. Baina aurten, ingurumen arloari gune berezia emango diote Trintxerpen, eta Aita Mari nahiz Zaporeak bezalako irabazi asmorik gabeko inizatibek tarte berezia izango dute, jaialdia bitarte saldutako sarreren diruaren zati bat haientzat izango delako: itsas ondarea, ingurumena, elkartasuna eta kultura elkarrekin hilaren 26tik 29ra Pasaian. ✕



ITSASOSM BOAT RENTAL BIZI ITSASOA GURE ALOKAIRU ONTZIEKIN

EGUNA **260€**
-TIK AURRERA

ITALMAR OPEN 17 6 PAX TITULIN

EGUNA **590€**
-TIK AURRERA

SOLEMAR 25 10 PAX PNB

ESTRUCTURA MARIKOS
ITSASO

EZAGUTU
GEHAGO HEZEMEN

+34 650 257 482 www.itsasosm.com

ELKARRIZKETA

“Gure ibilbidea eta itsas iragana ospatu nahi ditugu”

XABIER AGOTE PASAIAKO ITSAS FESTIBALAREN PRESIDENTEA

Programazio bete-betearekin, indartsu dator Itsas Festibala. Pasaiaiko lau barrutietan zehar askotariko jarduerak antolatu dituzte, eta iraunkortasunari zein elkartasunari garrantzi berezia emango diote.



ANE MENDIZABAL SARRIEGI PASAIA

Zaila izan al da lau urteren ondoren Pasaiaiko Itsas Festibala antolatzea?

Kontua da aurten ere ez genuela oso argi Itsas Festibala antolatzeko aukera izango ote genuen. 2020ko edizioa bertan behera gelditu zen eta aurten, lan hori berreskuratzeko aukera izan dugu. Azken gauzatxoak lotu eta laster hasiko gara.

Zertan ezberdinduko da aurtengo edizioa?

Lehenengo edizioarekin alderatuta formatu berdintsua izango da. Kontua da, eduki aldetik askoz ere aberatsagoa izango dela. Aurtengo nabarmenena itsasontzi kopurua izango dela esango nuke. Denera 160 itsasontzi egongo dira, azken edizioan baino 50 gehiago. 2018an ontzi handi bakarra izan genuen, *Kaskelot* deiturikoa. Aurten, berriz, bost ontzi handi egongo dira, zein baino zein ederragoak. Eta horrek, bereziki, Pasaiaiko portuari ikusgarritasuna emango diola uste dut. Bost ontzi hauek San Pedroko moilan egongo dira, bata bestearen ondoan jarrita. Gainontzeko ontziak gora eta behera ibiliko dira. Lehorrean, berriz, lehenengo edizioan baino eduki gehiago egongo da. Musika asko egongo da, ez oholtzaren gainean bakarrik, baita kalean ere. Besteak beste, koralak, otxoteak, txarangak eta batukadak egongo dira. Bestalde, kontzertuak lau barrutietan zehar banatuko dira eta



hori ere berritasuna da. Gainera, hamahiru kontzertuetatik lautuan euskal talde hasi berriak izango dira.

Zer izan da antolatzeko zailena?

Itsas Festibalaren formatua konplexua da. Lehorreko ohiko kontuez gain, itsasokoak antolatzea da batez ere zailena. Itsasoa ez da eremu egonkorra. Itsasotik etorri behar duten ontziek badute nahikoa erronka garaiz etortzen.

Aurten bereziki iraunkortasunari eta elkarlanari eman nahi izan diozue garrantzia.

Pasaiaiko Itsas Festibala itsas kulturaren, itsas ondarearen eta itsasontzietan oinarritzen da. Baina gure ustez ingurumena bezalako elementuak ondare horri loturik doaz, eta ez dira bereziki behar. Azken finean dena bat da. Ingurumenarengatik izango ez balitz ez litzateke kulturarik izango. Horregatik, festibalaren eremu garrantzitsu bat ingurumenari eskaintzea erabaki genuen. Eremu horretan zenbait eragile eta itsas ontzi batzuk izango dira, hala nola, *Mater*, Don Bosco, Blas de Lezo Itsas eskola, Scylla erakunde frantziarra eta *Aita Mari*-tarrak.

Bestalde, elkartasunari garrantzia



Asier Perez-Karkamo

eman nahi izan diogu. Horretarako, *Aita Mari*-rekin eta Zaporeak irabazi asmorik gabeko elkartearekin zenbait jarduerantolatuko ditugu. Oraindik prestaketa prozesuan gaude, eremu hau azken kontukoa izan baita. Itsasontzi errusiar bat izango dugu badian, *Shtandart*. Eta ontzi hori bakearen sinbolo bihurtuko dugu. Lagun baten ontzia da. Duela hamar urtetik gora Errusiar sartzeari debeatu zioten Putinen erregimenarekiko oso kritikoa izan zelako. Administrazio kontuak direla eta, ez genuen oso argi

etortzeko aukerarik izango ote zuen. Baina azkenean baimena eman diote. Hori dela eta, pixka bat berandu gabiltza ontzi horretan garatu nahi dugun programazioa antolatzeko. Baina dena prest izango dugu festibala hasten denerako. Elkartasunari ez ezik, giza eskubideei eta gai hori lantzen ari diren hainbat erakunderi ahotsa eman nahi izan diegu. **Zergatik da garrantzitsua, itsas ondarea kontserbatzeaz gain, jendartera zabaltea?**

Duela gutxira arte, Euskal Herrian, itsas

«Elkartasunari ez ezik, giza eskubideei eta gai hori lantzen ari diren hainbat erakunderi ahotsa eman nahi diegu»

«Duela gutxira arte, Euskal Herrian, itsas ondareak ez du ondare izaerarik izan»

ondareak ez du ondare izaerarik izan. Hasi ginenean, [Albaola sortu zutenean], duela 23 urte, ez zuen izaera hori, eta guk asko landu eta asko aldarrikatu dugun zerbait da itsas ondarearena. Euskal Herriak izan duen iragana bereziki aberatsa, interesgarria eta aldi berean oso gutxi ezaguna izan da, eta horren inguruan argia jarri beharra zegoela iruditu zitzaigun.

Gure itsas iragana ezagutarazi, eta aldi berean, Pasaian, udalarekin eta Oarsoaldeko Garapen Agentziaren laguntzarekin, Albaola, itsas ondarea babesteko eta balioan jartzeko egitasmoaren sorrera ospatu nahi dugu. Sortu zenetik urratsak egin ditugu eta erreferentzialtasun bat lortu dugu. Pasaia, Euskal Herriko itsas ondarearen adierazlerik nagusia bihurtu da, eta hori dela-eta sortu dugu festibala. Ekitaldi honetan urte hauetan guztietan zehar egin dugun ibilbidea eta itsas iragana ospatu nahi dugu. X

PASAIKO ITSAS ARRANTZA – Blas de Lezo LHII



Aurrematrikula: maiatzaren 9tik 27ra
Animatu!!!

ERDI MAILAKO ZIKLOAK:

- Urpekaritza profesionala - Itsasertzeko arrantza -
- Itsasontziko makinista - Teknikaria -

GOI MAILAKO ZIKLOAK:

- Alturako arrantza - Itsasontziko makinista -
- Goi-mailako teknikaria -

Marinos kalea, 2. 20110 Pasaia. Tel.: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net - www.pasaiaeskola.net





2018ko edizioko argazkia da goikoa. Aurten ere irudi berbera errepikatuko da, baina ontzi gehiagorekin. **PASAI ITSAS FESTIBALA**

Mundu osotik etorritako bisitari erraldoiak, barrutik

Dozenaka ontzi porturatuko dira hilaren 26tik 29ra, lehen edizioan baino ia 50 gehiago. Horietako bost barrutik ikusteko aukera egongo da, bisitagarriak izango baitira hiru egunez.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Itsasontziek txiki utziko dute badia hilaren 26tik 29ra. Munduko hainbat txokotatik heldutako dozenaka barkuk nabigatuko dute lau barrutien arteko uretan. Bigarren edizioa biribiltzeko 16otik

gora ontzi ekarriko dituzte, askotarikoak, antolatzaileen arabera, «tipologia eta jatorri ezberdinetako ontzi asko elkarrekin sartuko dira badian». Une hori «ikusgarria» izango dela aurreratu dute. Lehen ontziak, osteguneko (hilak 26) 18:00ak aldera sartuko dira bokaletik.

Porturatuko diren ontzi txikienek

2,99 metroko luzera dutela zehaztu dute. Handienak, aldiz, 50 metrorainoko ontziak dira. «Ontziek belaz eta kulturaz beteko dute badia, eta bisitariak itsasora begiratuko dute berritri, iragana gogoraziz eta Pasaiako itsas historia aberatsa elkarrekin ospatuz», erantsi dute Pasaiako Udaleko eta Albalako antolatzaileek.

2018an baino 48 gehiago

Udala eta gainerako antolatzaileak oso pozik agertu dira aurtengo ediziorako lortutako itsasontzi kopuruarekin, hala adierazi zuten joan den astean egindako aurkezpenean. Izan ere, 2018ko lehen edizioan 115 barku porturatu ziren, eta aurten, aldiz, 163 dira Pasaiara etorriko direnak.

ONTZIOLA
J A T E T X E A

Juan XXIII kalea, 34.
Pasai Donibane.
Tel.: 943 34 08 09

**MENUAK,
OGI ARTEKOAK,
HANBURGERRAK,
SANDWICHAK
ESKEINTZEN
DITUGU**

rk
a
olkularitza asesor

rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

| Fiskala | Kontabilitatea | Lana
| Aseguroak | Finken Administrazioa



MARITÉ

FECAMP, NORMANDIA, 1922

Hiru mastako goleta, 44,9 m-ko luzera. Bakailao ontzi eta kabotaje-ko merkataritza ontzi gisa bezala hasi zen. Guztira, 16 bela ditu ontziak, 650 metro inguruko oihalekin.

SARRERAK:



OOSTERCHELDE

ROTTERDAM, HERBEHEERAK, 1917

Hiru mastako goleta, 50 m-ko luzera. Elikagaiak eta salgaiak garraiatzen zituen. Egun, ezaugarri horiek dituen azken itsasontzi herbeherearra da.

SARRERAK:



SHTANDART

SAN PETERSBURGO, ERRUSIA, 1999

XVIII. mendeko fragata-erreplika, 34,5 m-ko luzera. 1703an, Errusia-ko Olenetsek hiriko ontziolan uretaratu zuten. Baltikoko flotaren lehen fragata da.

SARRERAK:



Gainera, oraingo honetan ontzi handi ugari gertutik ikusteaz gainera, barrutik ere ezagutzeko aukera egongo da, egun batez marinel sentitzeko aukera izango dute herritarrek, bost ontzik ateak zabalduko dituzte. Honako bostak izango dira ontzi bisitagarriak: *Marité*, *La Recouvrance*, *Shtandart*, *Oosterschelde* eta *Ring Andersen*. Ostiral, larunbat eta igandean bisitatzeko aukera izango dute herritarrek, egun osoz. Helduek sei euro ordaindu beharko dituzte, eta 5-12 urte bitarteko haurrek berriz, hiru. Ontzi guztiak San Pedroko kaian porturatuta egongo direla zehaztu dute Pasaia Itsas Festibaleko arduradunek.

Ontziak bisitatzeko aukeraz gain, horietako batek bi ekitaldi berezi jasoko ditu. *Shtandart* ontziak, esaterako, larunbatean, «kulturartekotasuna, errefuxiatuak eta migranteen gaia» lantzeko bi ekitaldi jasoko ditu barrualdean.

Pasaitarrei bezalaxe, inguruko udalerrietako herritarrei ere barku berezi horiek bisitatzeko deia egin diete antolatzailerik. ✕




LA RECOUVRANCE

BREST, FRANTZIA, 1992

XIX. mendeko itsasontzi baten erreplika, 41,66 m-ko luzera. Jatorrian posta urgentea garraiatzeko erabiltzen zen. Brest herriaren sinboloa da eta Bre-tainiako hiriaren enbaxadorea.

SARRERAK:



RING ANDERSEN

DANIMARKA, 1948

35 m-ko luzerako ontziola. Bere kargaontzi ibilbidean (1948-1962) gatza, alea eta beste merkantzia batzuk garraiatu zituen Itsaso Baltikoren eta Afrikaren artean. 1962an saldu zuten.

SARRERAK:



INGURUMENA

Iraunkortasunean igeri egiteko kaia izango da Trintxerpekoa

Ekosisteman pentsatzen duten lau proiektu bisitatzeko parada izango da Trintxerpeko kaian. Bertan, lau egitasmok iraunkortasunean zertan eta nola eragiten duten erakutsiko dute.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Trintxerpeko kaia hartuko dute iraunkortasunean erreferente eta estrategiko diren, eta aldi berean itsasoari lotuta dauden zenbait proiektu eta proiektu-ontzik. Beraz, Pasaia Itsas Festibalak ahalegin berezia egingo du iraunkortasun ereduak ezagutarazten.

Festibalak irauten dituen lau egunean, *Le Scylla*, CIPF Blas de Lezoko *Ortze* eskola ontzia, Mater Museoaren Izan Itsas Zaindaria kanpaina eta Don Bosco Lanbide Heziketa ikastetxeko *Itsasguzki* prototipoa gertutik ezagutzeko aukera izango da. Lau ontzi horiek bisitatzeko aukera izango da Trintxerpeko kaian, eta horietatik hiru badia inguru-koak direla.

Iraunkortasunaren ertz ezberdinak jorratzen dituzten lau ontzi proiektu dira, hala nola, itsasontziek gutxiago kutsa dezaten prototipoak garatuz edota ontzietatik herritarrengan eragiteko, kutsadura eta aldaketa klimatikoaren afe-ran. Era batean ala bestean, lekua izango dute hilaren 26tik 29ra bitarte jaialdian,

eta herritarrek aurrez aurre ezagutu ahaliko dute haien lana. Horien ardura-dunek azalpenak emango dituzte.

Lau ontzi, helburu bat

Ekosistema babestea eta horrek jasaten dituen giza ondorioak ildo dituen egitasmok ezagunenetakoa da Mater Ontzi Museo Ekoaktiboarena da. Haien lan ildo-erri jarraituz, Izan Itsas Zaindaria kanpainarekin bertaratuko dira kaira. Ontzira sartzen denak erronka bati egin beharko dio aurre ibilbide bati jarraituz, hausnarketa klimatiko bat egitera bul-

Iraunkortasunaren ertz ezberdinak jorratzen dituzten lau ontzi eta egitasmok dira

tzatzeko xedearekin. Hala azaldu du Markel Elizalde, egitasmoaren komunikazio arduradunak: «Itsasoak guri zer ematen digunari buruzko erronkak izango dira. Asmoa da jendeak ikustea zer jasotzen dugun itsasoaren partetik, zer ematen digun guri itsasoak ikuspegi



San Pedron egon ohi da 'Mater' ontzia, eta hainbat ekintza eskaintzen dituzte urtean zehar. **A. Aranburu**

desberdinetatik, ingurumenari, elikadura eta klimari dagokienez, adibidez». *Itsas zaindaria txokoa* ere egongo da, eta itsasoak kostaldera ekartzen eta jada ekartzen ez duena azalera du helburutzat Materrek, «zentzu natural batean kostaldera iritsi behar direnak baina gizakiaren eraginez hiltzen diren horiek».

Pasaiaiko Blas de Lezo ikastetxeko ORTZE-CV proiektua ere iraunkortasunean esanguratsua da. Bateria elektrikoa eta diesela sortzeko instalazio bat egin dute, eta ondoren, *Ortze* eskola ontzian instalatu. «Oro har, potentzia handiko ontzietan instala daiteke, eta asmoa da itsasontziek kostaldetik gertu arrantza-tu ahal izatea, gas kutsakorrik eta zaratarik gabe». Berezitasuna da bateria elektrikoak eta diesela sortzeko instala-



Pasai Donibane

Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Asteleneetik
larunbatera
8:30etik
20:30era.

Bertako ekoizleekin
konpromisoa

Ongi etorri
Itsas
Festibalera!

IES Koldo Mitxelena BHI

Erreterria

50 urte

Itsasoa garden dago
Koldo Mitxelenako
ateraino





zio bat duela, eta potentzia handiko ontzietan erabili ahalko litzatekeela. Espainiako Estatu mailan aitzindari den teknologia dela azaldu du Gema Ces ikastetxeko zuzendari sanpedrotarrak.

Energia berriztagarriak eraginkortasunez erabiltzen dituen *Itsaseguzki* itsasontzi prototipoa erakutsiko du Don Boscok. Etengabe orientatzen den eguzki panela da berrikuntza nagusia, «egiten duen ibilbidea edozein dela ere, teknologia horri esker %30 eraginkorragoa da eguzki-energian», azaldu du Xabier Izquierdo proiektuaren tutoreak.

Trintxerpeko itsas ingurua hartuko duen eta herrikoa ez den ontzi bakarra izango da *Le Scylla Wings of the Ocean* irabazi-asmorik gabeko erakunde frantziarrarena. Atlantikoan, Mediterraneoan eta Frantziako kostaldean garbiketa lanak egiteko erabiltzen den bi ontzieta-ko bat egongo da amarratuta. Erakundeak, 2022rako, 100 garbiketa saio egiteko



'Ortze' eskola ontziaren bateria aitzindaria da. **Eusko Jaurlaritza.**

helburua ezarri du, eta maitatza bukaeran hasiko duten erronka horri buruz gehiago jakiteko beta izango da.

Elkartasun keinua

Irabazi asmorik gabeko festibala da Paisaiakoa, eta barrutietan egingo diren ekintzen sarreraren dirua dohaintzan

emango diete *Aita Mari* ontzia kudeatzen duen Itsas Salbamendu Humanitarioari, eta Zaporeak GKeri. Bi erakunde migrazioan dabilen pertsonekin kolaboratzen dute, Euskal Herritik kanpo; lehenak, mediterraneo itsasoko erdialdeko itsasoan, eta bigarrenak, Grezian eta Etiopian. ✕

itsastresnak
ERCIBENGOA

JOTUN

Nabalaldea, A 2b.
PASAI DONIBANE.
Tel.: 943 390436
943 394532

TOTAL

muguruza ardoak
TABERNA - JATETXEA
pintxoak / razioak / ogitartekoak

Eguneko arrainean espezialistak gara. Etorri gure tomate entsalada dastatzera!

Torreatzea kalea, 8 - behea 943 39 49 44 . Pasai San Pedro

EGUNEKO MENUA . PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOA . MENU BEREZIAK

aupa Itsas Festibala!

PARI-BERRI
T A B E R N A

Lezo Bidea, 15. Pasai Donibane. Tel.: 943 520 857 - 650 721 636

EGITARAU DONIBANE

EDUKI IRAUNKORRAK

Bizkaia plazan. Artisauen azoka itsas jaialdi guztian zehar, 11:00etatik 20:00etara zabalik. Yola elkartearen on-tzi pirata ere bertan izango da.



Bizkaia plazan. Soinuenea Fundazioaren *Munduko xirolarruak* erakusketa jaialdi guztian zehar, 11:00etatik 20:00etara zabalik.

Badian zehar. Jaialdiaren barruko ontzien nabigazioak hilaren 27tik 29ra, 11:00-13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

HILAK 20, OSTIRALA

20:00. Juanba Berasategi aretoan, Magallanes *Elcano, la primera vuelta al mundo* antzerkia Timaginas Teatro konpainiaren eskutik.

HILAK 21, LARUNBATA

21:00. Juanba Berasategi aretoan, Magallanes *Elcano, la primera vuelta al mundo* antzerkia Timaginas Teatro konpainiaren eskutik.

HILAK 22, IGANDEA

19:00. Juanba Berasategi aretoan, *Aita Mari* dokumentalaren emanaldia. Ondoren, hitzaldia: Izaskun Arriaran (*Aita Mari*-ko erizaina), Amets Arzallus, Isa Eiguren, Patricia Ponce eta Gerardo Carrere izango dira hizlariak.

HILAK 26, OSTEGUNA

18:00etan hasita. Itsasontzien sarrera nagusia 2022ko Pasaia Itsas Festibala hasteko.

HILAK 27, OSTIRALA

Goizean. Badiako eskoletako ikasleek (6-12 adin tartekoek) bisita egingo diete Porrotx, Marimotots eta Txo mikmak txikiari.

18:00. Deñe taldearen kontzertua Bizkaia plazan.

19:00. Juanba Berasategi aretoan, *Miserableak* Victor Hugoren klasikoaren egokitzea, abesbatza eta bakarlariekin, eta Iñigo Ortégak zuzendutakoa.



20:30. Mugan taldearen kontzertua Bizkaia plazan.

22:00. Fetén Fetén taldearen kontzertua Bizkaia plazan.

HILAK 28, LARUNBATA

10:00. Badian, itsas diana.

11:00. Bizkaia plazako kai zatian, itsas bataioak helduentzat eta haurrentzat.

12:00. Meipitik abiatuta, kantu jira.

12:00. Badian, Haur eta Kadete adinetako haurrentzat batelen estropada mistoa.

12:30. Bizkaia plazan, mutxikoak.

17:00. Bizkaia plazan, Alargun Beltzak elektrotzaranga.

20:00. Juanba Berasategi aretoan, Kresala Dantza Taldearen ikuskizuna.

HILAK 29, IGANDEA

10:00. Badian, itsas diana.

11:00. Bizkaia plazako kai zatian, itsas bataioak helduentzat eta haurrentzat.

12:30. Bizkaia plazan, Juan Mari Beltrannen kontzertua.

16:00. Bizkaia plazan, astronomia tailerra haurrentzat (6-12) Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik. Aterki bat eraman behar da.

17:00. Bizkaia plazan, xirolarru tailerra haurrentzat (6-12).

18:00. Bizkaia plazan, Soinueneako musikarien, eta Ze Francisco A Volta Guitarras taldearen kontzertua.

- Motora
- Jatetxeak
- Bidegorria
- Interesguneak
- Amarratutako ontziak
- INFOgunea
- Lehiatila
- BUS geltokia
- TREN Geltokia
- TAXI Geltokia



EDUKI IRAUNKORRAK

Badian zehar. Jaialdiaren barruko on-tzien nabigazioak hilaren 27tik 29ra, 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.



Lonjako plaza berrian. Elkarte eta ondare kulturaren gunea. Hainbat talde eta erakunde euren eremuak izango dituzte.

Lonjako plaza berrian. Xose Igle-sien akuarela eta eskultura erakusketa: *Nación Mar*.

Albaola Itsas Kultur Faktorian. Lan-bide tradizionalak ezagutarazteko gu-nea: burdinola eta sokagintza.

Albaola Itsas Kultur Faktorian. *Re-fachos* argazki erakusketa.

Albaola Itsas Kultur Faktorian. *El-kano Itsas Herria* erakusketa.

HILAK 23, ASTELEHENA

19:00. Albaola Itsas Kultur Faktorian, Aztiko Paula Alvarezen hitzaldia: *Estu-diar el mar a bordo de un barco oceano-gráfico*.

HILAK 26, OSTEGUNA

18:00etan hasita. Itsasontzien sarrera Pasaia Itsas Festibala hasteko.

20:00etan hasita. San Pedroko kaian, kontzertuak: Oreka TX + Thierry Bis-cary, eta Pao Barreto.

HILAK 27, OSTIRALA

Goizean. Badiako eskoletako ikasleek (6-12 adin tartekoek) bisita egingo diete Porrotx, Marimotots eta Txo mikmak txikiari.



18:00. Lonjako plaza berrian, *Aita Ma-nuel* jarduera: Aita Manuelen ipuin li-buruan oinarritutako kalejira eta kon-tzertua.

19:00. San Pedroko kaian egongo den *Shtandart* ontzian, *Errefuxiatuak eta migranteak, bi errealitate* mahai-ingurua. Partaideak: Irungo Harrera Sarea, *Aita Mari*-ko kideak, SOS Arrazakeria eta Zaporeak. Aurkezlea: Amets Arza-llus.

HILAK 28, LARUNBATA

10:00. Badian, itsas diana.

10:00, 11:30 eta 13:00etan. Lonjara bisita gidatuak.

Goizean zehar. Kofradian, haurrentza-ko tailerrak: itsas eskulanak (10:00), itsas esperimenduak (11:30) eta arrantza tailerra (12:30).

11:00. Lonjako plaza berrian, saregileen lanen erakusketa.

11:30. Trintxerpe Zahar Abesbatza To-rreatzetik Trintxerpe aldera joango da abesti-kalejiran.

17:00. Kaiko eremuan, XVIII. mendeko jantzien desfilea Jantziaren Zentroaren eskutik.

18:00. Elizan, Trintxerpetarra Abesba-tzaren eta Coral Ares Novosen kontzer-tua.

HILAK 29, IGANDEA

10:00. Badian, itsas diana.

12:00. Herritik zehar, kortsarioen ko-rua.

12:00. Lonja berrian, Xose Igle-siasek *Nacion mar* liburua aurkeztuko du.

19:00. Kaian, Shtandart ontziari egurra emateko kultur arteko jaialdia: *Euskal Herria-Errusia-Ukarina*, Ekaterina Go-penko abeslariarekin.



EGITARAU ANTXXO

EDUKI IRAUNKORRAK

Katuen etxadian. *Antxoko kai zaharra* erakusketa egongo da jarrita.



Kultur Etxean. Itsasontzien maketen erakusketa, eta Jesus Manseren margo-lanekin Marinas erakusketa.

Badian zehar. Jaialdiaren barruko ontzien nabigazioak hilaren 27tik 29ra, 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

HILAK 26, OSTEGUNA

18:00etan hasita. Itsasontzien sarrera nagusia 2022ko Pasaia Itsas Festibala hasteko.

HILAK 27, OSTIRALA

Goizean. Badiako eskoletako ikasleek (6-12 adin tartekoek) bisita egingo diete Porrotx, Marimotots tea Txo mikmak txikiari.

19:45. Elizan, Trintxerpetarra Abesbartzaren kontzertua.

HILAK 28, LARUNBATA

10:00. Badian, itsas diana.

18:00. Katuen Etxadian (Marealta ondoan), *Denboraren tunelean* bertso saioa. Bertsolariak: Jion Maia eta Amets Arzallus. Gai jartzaileak: Xabier Alberdi eta Andoni Etxarri.

19:00. Gure Zumardian, Rumbling Lips taldearen kontzertua.

21:00. Gure Zumardian, Arima Soul taldearen kontzertua.

22:30. Gure Zumardian, Fundacion Tony Manero taldearen kontzertua.

HILAK 29, IGANDEA

10:00. Badian, itsas diana.

10:00. Herritik zehar, Soinueneako xilarlaru jotzaileen kalejira.













PASAIATIK KANPOKOAK

Getariako Arrantzaleen Kofradian.

Hilaren 25ean, 18:30ean, ontzi tradizionalen errealitatearen eta ontzi historikoen araudi berriaren gaineko hitzaldia Jose Miguel Manueteren eskutik.

Donostiako Euskal Itsas Museoa.

Festibalean izango den *Recouvrance* ontzian iritsitako Gildas Flahault-en margolanak, hilaren 26ra arte.

-  Motora
-  Jatetxeak
-  Bidegorria
-  Interesguneak
-  Amarratutako ontziak
-  INFOgunea
-  Lehiatila
-  BUS geltokia
-  TREN Geltokia
-  TAXI Geltokia



EDUKI IRAUNKORRAK

Kaiko eremuan. Aita Mari salbamendu ontziaren gunea iraunkorra, Pasaiaiko Blas de Lezo LHIIren gunea, Mater Museoarena, eta *Atyla* nahiz *Scylla* tamaina handiko ontziak.



Badian zehar. Jaialdiaren barruko ontzien nabigazioak hilaren 27tik 29ra, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

HILAK 26, OSTEGUNA

18:00etan hasita. Itsasontzien sarrera nagusia 2022ko Pasaia Itsas Festibala hasteko.

HILAK 27, OSTIRALA

Goizean. Badiako eskoletako ikasleek

(6-12 adin tartekoe) bisita egingo diete Porrotx, Marimotots eta Txo mikmak txikiari.

18:30. Joaldunak Trintxerpeko kaleetatik zehar.

19:00. Kaiko eremuan, Kyxo taldearen kontzertua.

20:30. Kaiko eremuan, Lamiak taldearen kontzertua.

22:30. Kaiko eremuan, Liher taldearen kontzertua gonbidatu bereziekin: Miren Narbaiza eta Noa Egiguren.

HILAK 28, LARUNBATA

10:00. Badian, itsas diana.

12:00. Barrutiko kaleetatik zehar, batukada.



HILAK 29, IGANDEA

10:00. Badian, itsas diana.

17:00. Trintxerpe eta San Pedro artean, itsas danborrada.

NOLA MUGITU JAIALDIAN

Motora. Pasaia Itsas Festibala bitartean hiru motora zerbitzu izango dira martxan, bat ohikoa, eta beste biak bereziak. Ohiko lineak Doniabneko Santiago plaza eta San Pedroko Torreatze batuko ditu: hilaren 26 eta 27an 06:30etik 23:00etara; hilaren 28an 07:00etatik 00:00ak arte; eta 29an 07:45etik 00:00ak arte.

Motora bereziak. Bi linea berezietako batek Trintxerpeko Hospitalilloa eta Donibaneko Bizkaia plaza (eta alderantziz) lotuko ditu, hilaren 26an 16:00etatik 20:00etara, eta hilaren 27tik 29ra 11:00etatik 20:00etara. Beste linea berezia Donibaneko Bizkaia plaza eta San Pedroko Torreatze (eta alderantziz) lotuko dituena da, aurreko motoraren ordutegi berberarekin.

Txu-Txu tren. Jaialdi osoan zehar Trintxerpeko Hospitalilloa eta San Pedroko pilotalekuko biribilgunea batuko ditu garraiobideak.



PASAIA

ITSAS FESTIBALA

Maiatzak

26-29

2022



Sustatzaileak



Babesleak



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO MERKATARITZA
EIA-KONTABILITATE ZALAZA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



CÁMARA

Comercio de Pasaia Oria

